## BAZEN BEHIN...

"Bazen behin bihotzak alaitzen zituen zirku bat, kolorez gainezka, ilusioz beteriko mundua...". Telebistako pailazoek gure etxeetara zabaldu zuten lelo mediatikoa gure haurtzaroko oroimenetan txertaturik geratu da. Horren harira, gogoan eduki beharra dago Emakumezko Telebista Pailazo Ederrik ez zela izan harik eta 1980. hamarkadan Rita, Milikiren alaba agertu zen arte. Baina heldu diezaiogun berriz hariari: "bazen behin zirku bat...".

Ezer aldatu ote da ordutik hona? Telebistak zirku izaten jarraitzen du, orain arrosaz eta, geroz eta gehiago, horiz apainduriko agertokian aurkezten zaigularik. Barrea eta denborapasa, malko errazak bilatzen dituen ikuskizuna besterik ez da, gure adimenak informazioz? betetzeaz gain. Lauki formako zirku handi honek kontsumitzaile onak izaten "irakatsi" nahi digu, kontatzen, saltzen eta iradokitzen digun guztia irensten lagundu ere.

## HABÍA UNA VEZ...

"Había una vez un circo que alegraba siempre el corazón, lleno de color, un mundo de ilusión...". En los recuerdos de nuestra infancia ha quedado grabado aquel boom mediático que los payasos de la tele trajeron a nuestras casas. Por cierto, hay que recordar que no existía una Gran Payasa Teleguapísima hasta que en los años 80 apareció Rita, la hija de Miliki. Pero retomemos el tema: "había una vez un circo...".

¿Han cambiado mucho las cosas desde entonces? La tele sigue siendo un circo, con su pista que ahora se viste de rosa y, cada vez más, de amarillo. Un espectáculo que busca la risa y el entretenimiento, la lágrima fácil, además de saturar nuestras mentes con horas y horas de... ¿información? Este gran circo cuadrado nos quiere "enseñar" a ser buenas y buenos consumidores, a tragar todo lo que nos cuenta, vende y sugiere.




"Kutxa leloaren" aitaren, hau da, zazpigarren artearen hasieran, arrazoi teknikoak tarteko, "kolorez beteriko mundurik" ez zen. Charlie Chaplin zein Buster Keatonek protagonista zituzten zuribeltzeko irudiak, soinua erabili gabe, denetariko egoerak eta emozioak iradokitzeko gai ziren. Baita guk ulertu ere! Keinuak eta mugimenduak gorputz hizkuntzaren parte dira, eta mundu osoan ulertuak dira, bai Rabaten, Tokion, Moskun zein Mexikon (azken horren harira, zeinen ederra den Mexiko!).

Agian telebista itzali eta hura pizteko aparailua ezkutatzeko ahalegina egin genezake. Agian liburu bat irakurri edo herri baten kulturara gerturatu gintezke haren hizkuntza ikasiz. Agian gauza gehiago izan badirela ohartuko gara, esaterako mundu erreala, ederra erabat, batzuetan gogorra eta gatazkatsua dena baina, aldi berean, bestelako kontu txikiz beterik dagoena.

SOLEDAD JÁCOME BRAVO

En los comienzos del séptimo arte, padre del cajón tonto, no era posible aquello de "un mundo de color", básicamente por cuestiones técnicas. Aquellas imágenes a B/N que nos regalaron Charlie Chaplin o Búster Keaton eran capaces de expresar todo tipo de situaciones y emociones sin abrir la boca. ¡Y lo entendíamos todo! Los gestos y movimientos forman parte de la expresión corporal que los hace reconocibles a nivel universal, sea en Rabat, Tokio, Moscú o México (que por cierto, ¡qué bonito México!).

Tal vez, podríamos hacer un esfuerzo, apagar la tele y esconder el mando. Tal vez, podríamos leer un buen libro o descubrir la cultura de un pueblo aprendiendo su idioma. Tal vez, descubramos que hay muchas más cosas, un mundo real, hermoso, a veces duro y conflictivo pero siempre lleno de matices.

SOLEDAD JÁCOME BRAVO